

NEREA LOIOLA PIKAZA

AZKEN DENBORA

AUKERATU ZURE
ABENTURA
+
IHES-LIBURUA



ESKAPU LIBURUA

erein

AZKEN DENBORA

NEREA LOIOLA PIKAZA



AUKERATU ZURE ABENTURA + IHES-LIBURUA



erein

*Orhi, Xuhar eta Andoniri,
inoiz aukeratu dudan abenturarik
zoragarriena zaretelako.*

*Zuri, irakurle,
abentura hau aukeratu duzulako.*



Ez dakizu zergatik,

baina korrika zoaz ihesi zure lagunik onenaren aldamenean.

Ez dakizu nor, baina norbait duzue atzetik segika.

Atzera begiratzen duzu. Zuen harrapakaria nor den jakin nahi duzu eta, batez ere, zuengandik zenbateko distantziara dagoen. Harrapakaria ez, harrapakariak. Bat baino gehiago dira.

Denbora gehiegi mantentzen duzu burua jiratuta eta, ohar-kabea, estropezu egin duzu kaleko koska batekin eta ia muturrez aurrera erori zara.

—Ondo zaude?! —galdetzen dizu Kaek. Ziztu bizian doa zure laguna, ez duzu sekula hain bizi korrika egiten ikusi.

—Zer nahi dute?! —beste galdera batekin erantzun diozu.

Larri eta estu begiratzen dizu berak, aurpegi berde zurbila du, sagar garratzen kolorekoa; eta izerdi geruza mehe batek hartzen dio kopeta.

Atzera begiratzeko tentazioari eusten diozu, arriskutsuegia litzateke berriz ere estropezu egin eta erortzea. Norantz zoazten jakin gabe, eskuinera hartzen duzue alde zaharreko kale estu batean. Egun-argia da eta hutsik dago kalea. Orduan ohartzen zara aurretik ibilitako kaleak ere hutsik zeudela.

Non dago jendea?

Gerra bat hasi da eta ez zarete enteratu?

Nortzuk dituzue atzetik?

Zer gertatuko da harrapatzen bazaituzte?

Galdera galderaren atzetik, edozein unetan burua lehertuko zaizula iruditzen zaizu; ezin duzu pentsatu, korrika egin behar duzu, ihes, eta beste ezer ez.

Kae ezkaratz bat zabaltzen saiatzen da, baina atea giltzaz itxita dago. Egurrezko ate handia jo du indartsu, txirrin guztiak jotzen ditu aldi berean.

—Amama! Amama! —oihukatzen du—. Zabaldu atea, amama!

Atzera begiratzen duzu kezkatuta: kalearen hasieran daude harrapakariak, geldirik zuei begira. Ezin dituzu ongi ikusi, figura beltz luze batzuk besterik ez dituzu antzematen. Ez duzu ulertzen zergatik ez dituzun ongi ikusten; ez daude hain urruti, baina haien gorputzak lanbroak hartu izan balitu bezala da.

Haiek korrika egiten hasten dira berriz ere eta zuek korrika egiten hasi beste erremediorik ez duzue.

—Goazen, Kae! —Tira egin diozu kamisetatik amonaren etxea atzean utz dezan—. Harrapatu egingo gaituzte!

Gorputza zeharkatzen dizun beldurrak giharrak lehertuko dizkizula iruditzen zaizu. Ez duzu sekula halako beldurrik sentitu.

Badakizu zuen atzetik dabiltzan horiek harrapatzen bazaituzte akabatu egingo zaituztela: bizitza salbatzeko egiten duzu ihes.

Herriko plazara iritsi zarete eta bertatik abiatzen diren hainbat kale ikustean, zalantza egiten duzue.

ZER EGINGO DUZU?

Ihesaldia **PARTE ZAHARREKO KALEETAN** zehar segitu nahi baduzu, zoaz 168. orrira.

Eskuinera hartu eta **BASORANTZ KORRIKA EGIN** nahi baduzu, zoaz 17. orrira.

Gelditzeko eskatu diozu Agatari.



Haren harridura aurpegia ikusita, lana martxan jarri eta ongi ari zaretela ziurtatu nahi duzula gaineratu duzu. Aitzakia bat da, noski.

Ez dirudi Agatari zure eskaria gehiegi gustatu zaionik. Dagoeneko gelako atearen ondoan dago eta, zuengana pare bat pauso eman aurretik, burua atera du logelatik pasillo aldera, norbaiten edo zerbaiten bila ariko balitz bezala.

—Ez naiz asko luzatuko —dio adeitasun handiz—. Hasi lasai papera kentzen eta zuek amaitu aurretik izango naiz bueltan.

Orain ziur zaude. Agata urduri dago. Esaldia amaitu eta pasillo aldera adi jarri da berriz ere, txakurrek urrutira zerbait entzuten dutenean bezala. Zergatik egongo ote da horrela?

Norberaren etxean dagoen norbait urduri egoteak ez dizu batera konfiantzarik ematen eta zu ere urduritzen hasi zara.

—Kontua da...—hasi da Kae. Zuri begira duzu, ohartu da Agata zuekin gelditzea nahi duzula bai ala bai, eta eginkizun horretan lagundu nahi dizu—. Kontua da...

—...Ez dakigula papera hormatik nola kendu —gaineratzen duzu bizkorregi hitz eginez.

Agatak begirada gora darama eta arnasa hartzen du sakon, pazientzia galtzen ari da, jada ez dauka hasieran erakutsi dizuen amonatxo samurraren aurpegiera.

—Nola ez duzue ba jakingo hormako papera kentzen? Paperari heldu eta tira, ez dauka konplikaziorik —dio eta hasperen egiten du berriz ere.

Agata leiho ondora gerturatzen da, paper izkina bati heldu eta tira egiten dio. Apenas indarrrik egin gabe paper zati handi bat kendu du hormatik eta eskutik zintzilik gelditu zaio.

—Ikusten? —esaten dizue papera erakutsiz—. Hau egiteko gai izango zarete, ezta? —gaineratzen du—. Eta zatiren bat oso itsatsita baldin badago, erabili horko espatula hori. Hori ez, bestea, es-tuagoa den hori.

—Ados, ez dirudi oso zaila denik —erantzuten du Kaek eta gorantz putz eginez alboratzen ditu kopetako ileak.

Hasi zaizkio hasierako lotsak pasatzen lagunari: eskerrak, zeren eta babalorea ematen du bestela.

Agatak papera kendu duen hormarantz gerturatzen zarete lanari ekiteko asmoz, baina paper izkina bati heltzen diozun uanean, eten egiten zaitu emakumeak.

—Hobe duzue beste horma horretatik hasi, errazago askatuko da. Egingo duzue leihoaren ingurua pixka bat entrenatu ondoren.

Kasu egiten diozue eta lanean hasten zarete. Agata ate aldera doa. Ez joateko eskatu nahi diozu berriz ere, aitzakia bat behar duzu gera dadin baina ez zaizu ezer bururatzten.

Bat-batean, Agata erne jartzen dela ikusten duzu. Oraingo honetan zuk ere aditu duzu zerbait, beheko solairuan norbait ibiliko balitz bezala. Ezer egiteko edo esateko astirik izan aurretik, goitik behera beltzez jantzitako pertsona batzuk sartzen dira logelara eta Agata harrapatzen dute. Pertsonak direla uste duzu, baina ez zaude ziur, zeren eta buruak bele itxurako maskara batzuekin esalita dituzte. Beltz-beltzak hauek ere.

Nortzuk dira?

Zer nahi dute?

Zergatik etorri dira Agataren bila?

Badirudi ez zutela espero Agataz gain beste inorekin topo egiterik eta zuek biok ikustean elkarri begiratu diote zalantzati. Batek baiezko keinua egin du buruarekin, eta segidan bi bele zuen bila datoz.

Garrasi egin behar zenuen unean estaltzen dizu ahoa trapu batekin eta, erdi arrastaka erdi oinez, gelatik aterarazi eta behe-rantz zaramatza. Egongelako sofara botatzen zaitu eta Agata eta Kae albo banatan jartzen dizkizute, trapu beltz bana ahoan eta eskuak eta gorputza soka batekin lotuta.

—Non daude?—galdetu dio bele batek Agatari, trapua ahotik zakar ateraz.

Agata ez da mugitu ere egin, hitz egin dion belearen begiradari tinko eusten dio. Denak Agatari begira daudela ikusirik, Kaeri begiratzen diozu eta keinu bat egiten diozu buruarekin. Berehala ulertzen du zer esan nahi duzun. Ezezko keinua egiten dizu. Zuk

baiezkoa. Berak ezezkoa. Zuk baiezkoa, begiak zabal-zabalik. Baiezko keinua egiten dizu azkenean eta sorbaldak altxatzen ditu.

Beleak Agatari galdera errepikatzen dion unean, keinu egiten diozu eta Kae eta biok jaiki egiten zarete aldi berean eta korrika ihes egiten saiatzen zarete.

Pare bat metro egin aurretik estropezu egiten duzu zerbaitekin eta lurrera erortzen zara. Berehala, ziztada bat nabaritzen duzu lepoaren atzealdean eta ezin zara mugitu, ezin duzu ezer ikusi, ezin duzu pentsatu...

Dena beltz gelditu da.



*Beldurra, lagun makurra.
Belaunen ikarari eusten ikasi beharko duzu
abentura honetatik onik atera nahi baduzu...*

Eutsi!